

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

19/2025 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko mahasti nabarmenen kontserbazioa eta mantentzea sustatzeko laguntza lerro espezifiko baten oinarri arautzaileei eta 2025eko deialdiari

Mahatsondoa ardoa egiteko landatu da antzina-antzinatik, eta klimak mahatsa heltzeko modua ahalbidetzen duen leku guztietara hedatu da. Arabako hegoaldean, zehazki, Arabako Errioxako eskualdean, mahastia ez da soilik biztanle gehienek diru sarreraren lehen iturria; beraiei nortasunaren ikur eta paisaiaren elementurik bereizgarriena ere bada, eta, ondorioz, gizarte osoaren egiazko ondarea. Nolanahi ere, mahastiarena ez da irudikapen estatiko bat; mahastiak, mahastiek betetzen dituzten lursailak, mahatsen barietateak eta, oro har, ustiatzen den labore horren ekoizpen sistemak eta bitartekoak bilakatuz joaten dira, eta horiekin batera, denboraren joanean eratzen diren paisaiak.

Historian zehar, izurriteen eta gaixotasunen erasoaldiek arriskuan jarri dute mahastizaintzaren biziraupena, eta, beste alde batetik, zenbait inguruabar edo aldi ekonomikotan, baliteke mahasti jakin batzuk behar bezain lehiakor ez suertatzea eta bizirauteko arazoak izatea. Hainbat faktore direla kausa, hala nola mahasti zaharren ekoizkortasun txikia eta Europako programa edo funtsen bidez etorri diren berregituratzeko eta birmoldatzeko pizgarri ekonomikoak, batez ere, azken hogeitaz urteetan, kendu egin dira hain emankorrak ez diren eta lantzeko zailtasun handienak dituzten mahasti zaharrak. Izan ere, "mahasti zahar" deitutako gehienek, mahats gutxiago ekoizten dute mahatsondo bakoitzeko, eta, horrez gainera, faltak izaten dituzte eta oso landatze tarte estuen bidez landatuta egon ohi dira, lursail txikietan eta topografia malkarrekoetan; beraz, lanak, tratamenduak eta bilketa izugarri zailtzen dira; edo, are gehiago, egungo makinak eta lana-besak erabiliz ezin dira landu.

Era berean, mahasti zaharren azalera murriztea ekarri duen beste arrazoi bat hauxe izan da: mahasti horietako mahatsa saltzearen truke jasotako prezioaren igoera, kalitate hobeko mahatsak izan arren, ez da nabarmen hobetu lursail berriagoetako mahatsen prezioaren aldean. Horregatik, ekoizpen txikiko eta zaintza zaileko mahasti horiei eusteagatik sari ekonomikorik jasotzen ez denez, askotan mahasti zaharrak erauzi eta mahatsondo berriak landatu dira haien ordeztan, mahatsondo berrien maneia errazagoa delako eta etekin handiagoa dutelako. Mahasti zaharrak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretua (Kontseiluaren ekainaren 9ko 19/2020 Foru Dekretuak eta Kontseiluaren apirilaren 13ko 14/2021 Foru Dekretuak aldatua) akuitua izan da mahasti zaharren erauzketa hein batean gelditzeko, baina ez da nahikoa izan. Aitzitik, mahasti zaharren ordeztan, maneia errazten eta etekin handiagoa ematen duten mahatsondo gazteak sartu dira pixkanaka-pixkanaka.

Mahasti zaharrak funtsezkoak dira Arabako Errioxako mahastien ekoizpenean; izan ere, neurri handi batean, Errioxa jatorri-deituraren gainerakotik bereizten da ezaugarri horregatik. Mahasti horiek natura balio handiko nekazaritza sistemak dira, eta gainera, material genetikoak eta biodibertsitatekoak bizirik irauteko gordailu bikainak dira, landareak oso egokituta baitaude naturaren beraren eta klimaren baldintza kontrakoan aurrean. Era berean, oro har, landatartasuna, ekoizkortasun txikia eta dibertsitate handia ezaugarri dituzten mahasti horiek sekulako garrantzia dute kalitate bereiziko ardoak egiteko. Beraz, beste arrazoi bat dago halako mahastien iraupenari eusteko eskualdean.

Azken batean, mahasti zahar horiek, zeinak paisaia tradizionalaren eta Arabako Errioxako berezko nekazaritza sistema hauen oinarritzako osagaiak baitira, bai eta biodibertsitatearen eragile eta kalitate handiagoko ardoen ekoizle ere, natura eta kultura ondare gisa kontserbatzea merezi dute, ekologiaren, historiaren eta paisaiaren ikuspegitik duten balioagatik.

Horiek horrela, Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu multzo kategoriarekin, kalifikatzen duen ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuak mahasti horien babes araubidea deskribatu, mugatu eta onesten du. Goian aipaturiko dekretu horren 1. artikuluan (Sustapen-neurriak), hauxe adierazten da: "Herri-erakundeek erabakitako sustapen-neurriak ezarriko dira Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturalaren monumentu-multzo osoan. Era berean, paisaiaren balioa indartzeko neurriak babestuko dira, eta paisaia hori eratu duten bizimoduei, ekoizpen-moduei eta tradizioei balioa emateko ekimenak lagunduko dira. Halaber, haren ondare-adierazpena egiteko eta hari balioa emateko ekimenak sustatu behar dira".

Beraz, kontserbatzeko interes berezikotzat jotzen diren mahastiak sustatu eta babesteko agindu hori betetzeko, beharrezkotzat jotzen da haientzako laguntza espezifiko bat ematea, paisaia tradizionalaren eta Arabako Errioxako berezko nekazaritza sistemen balio bereziaren osagai gisa babes daitezen, neurri handi batean, kalitate handiagoko ekoizpen bereizia lortzen laguntzen baitute, eskualde honetan ohikoa den bezala.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Horretarako, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Halaber, kontuan hartu dira Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egindako txostenean jasotako oharra. Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da; izan ere, behar bezala justifikatuta dago bai antolamendu juridikoan sartzea, bai ematen duen organoaren gaikuntza ere. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Azkenik, eraginkortasun printzipioari dagokionez, proposatutako arautzeak, duen izaera dela eta, ez die herritarrei oro har administrazio karga osagarririk edo alferrikakorik eragiten, ezta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokionez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko mahasti nabarmenen kontserbazioa eta mantentzea sustatzeko laguntza espezifiko baten oinarri arautzaileei, l. eranskineko xedapenen arabera.

Bigarrena. 2025erako laguntza deialdia onestea, honako hauek kontuan hartuta:

— Eskerak aurkezteko epea: 15 egun baliodun, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

— Eskerak leku hauetan aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Foru Ogasunak Gasteizen, Laudion eta Guardian dituen bulegoetako erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetatik edozein.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, betiere telematikoki aurkeztu behar dute, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/mahasti-asegururako-laguntzak>), pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez elkargoko kide izatera behartzen duen jarduera profesional batean ari direnek (jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako), eta administrazioarekiko harremanak nahitaez bide elektronikoz izan behar dituen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

— Kreditu erreserba: 54.082,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2025erako gastu aurrekontuaren 40104. G/419401/47900408 "Mahasti nabarmenen mantentzea" partidaren kontura. Dagokionean xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzten laguntza eskatzaileei.

— Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko ehunera, baita aurrekontu partidaren edozein zioreratik gerta daitezkeen kreditu gehikuntzengatik ere.

— Eskerak II. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztuko dira.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditza.

Azken xedapena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritzaren Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

I. ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

1.1. Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko mahasti nabarmenak kontserbatu eta mantentzeko laguntza espezifiko baten oinarri arautzaileak ezartzea Arabako Lurralde Historikoko eremuan.

1.2. Laguntza lerro hau mahasti nabarmenen mantentzea eta kontserbazioa bultzatu eta sustatzera bideratuta dago, honako ildo estrategiko hauen barruan:

a) Landa eta nekazaritza paisaiaren kontserbazioa, hobekuntza eta dibertsifikazioa bultzatzea, bereziki, Mahastiaren Paisaia Babestuarena eta Arabako Errioxako Mahastiena.

b) Nekazaritzako biodibertsitatea zaintzea Arabako Errioxako mahastietan.

c) Uraren eta luraren kudeaketa hobetzea.

d) Kalitateko ekoizpena mantentzearen alde egitea.

1.3. Urtero ezarriko da foru dekretu honetan araututako laguntzaren deialdia, bertan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta deialdia ebazten den egunean Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoan inskribatuta dauden mahastientzat.

Deialdi horretan, gutxienez, aurkezteko epea eta ebazpenari esleitutako kredituak ezarriko dira.

1.4. Laguntza hauek norgehiagoka prozedura bidez emango dira.

2. artikulua. Onuradunen betekizunak

2.1. Honako baldintza orokor hauek eta hurrengo artikuluko neurriari buruzko baldintza espezifikoak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak izan daitezke laguntzen onuradunak:

A) Pertsona fisikoak:

a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribatutako nekazaritza ustiategi baten titularra izatea.

b) Bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen egunean egotea.

c) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

d) Ez izatea zehapen administratibo edo penalik sexu diskriminazioagatik, ez eta debeku horrekin zehatuta egotea ere, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 2. artikuluaaren arabera.

e) Eskatera egitea dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

f) Mahasti irregularrik ez izatea.

g) Laguntza eskatzeko arrazoi izan den mahastia erauzteko eskatu ez izana.

B) Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:

Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuak edo bestelako pertsona juridikoak izanez gero:

a) Eskatzaileak aurreko 2.1.a) artikuluan pertsona fisikoentzat ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Sozietate zibilak, titulartasun partekatuak eta ondasun erkidegoak izanez gero, kide guztiek 2.1. a) b) artikuluan ezarritako baldintza bete beharko dute.

b) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute honelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta sei urtean gutxienez indibiso mantentzeko ituna egin bada. Sozietate zibilak eta ondasun erkidegoak direnean, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez eratuta egon beharko dira.

c) Foru dekretu honen ondorioetarako, urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin bat etorritz, sozietate zibilek duten tratamendua izango dute titulartasun konpartitua duten nekazaritzako ustategiek, baina ez dute bete behar eskritura publiko bidez eratuta egoteko betekizuna.

2.2. Lurzatien betekizun espezifikoak:

Laguntza hau eskatu ahal izango da deialdia ebazten den egunean Mahasti Nabarmenen Katalogoan inskribatuta dauden lurzatiengatik, baldin eta inskripzio eskaera eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen egiten bada.

3. artikulua. Laguntza eskaerak

3.1. Eskaerekin batera, hurrengo artikuluan adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3.2. Laguntza eskaerak edo bestelako adierazpenak guztiz edo partez ken daitezke idatziz edozein momentutan. Nekazaritza Sailak onuradunari ez betetzeak daudela jakinarazi badio edo lurtean bertan kontrol bat egiteko asmoa duela ohartarazi badio edo lurtean bertan egindako kontrol batek ez betetzeren bat agerian jarri badu, ez da onartuko ez betetzeak ukitutako dokumentu horien zatiak kentzea.

3.3. Onuradunak aurkeztutako laguntza eskaerak edota bestelako ziurtagiriak edozein momentutan zuzendu eta aldatu ahal izango dira ordainketaren aurretik, baldin eta Nekazaritza Sailak kasu zehatzaren ebaluazio orokorraren gainean onartutako ageriko akatsik badago eta onuradunak fede onez jardun badu.

4. artikulua. Eskaeraren dokumentazioa

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da, baina baliteke agiri osagarriak ere eskatzea, eskaera behar bezala zehazteko:

4.1 Oro har:

- Inprimaki normalizatua, behar bezala beteta eta sinatua.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzen duen agiria.

Ziurtagiri horiek ez dira beharrezkoak izango, baldin eta eskatzaileak eskaeran ez badio berariaz aurka egiten Nekazaritza Sailak zuzenean lortzeari.

Eskatzailea sozietate zibila edo ondasun erkidegoa bada edo ustategiaren titularkidea bada, gainera, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, edo nekazaritza ustategiko kide guztiei eskatzearen aurka ez dagoela adierazten duena.

- Eskatzailearen adierazpena, non hauek jasoko baitira:

- Laguntza jasotzeko baldintzak ezagutzen dituela.

- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio zehapenik edo zehapen penalik ez jaso izana, ez eta inolako legezko debekurik ere, sexu bereizkeriagatik ezarritako debekuak barne, bat etorritz Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoarekin.

4.2. Eraketa estatutuei eta haien aldaketei dagokienez, bai eta beharrezkoak izan daitezkeen baimenei dagokienez ere, Nekazaritza Ustiatgien Erregistroari unean-unean eman zaiona hartuko da kontuan, eta eskatzailearen erantzukizun eskusiboa izango da informazio hori eguneratuta egotea.

4.3. Edonola ere, Foru Aldundiak beretzat gordetzen du beharrezko deritzon dokumentazio osagarria dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei eskatzeko eskubidea, eskaerak behar bezala balioetsi ahal izateko.

4.4. Eskaeretan akatsen bat dagoela edo daturen bat falta dela ikusten bada, organo izapidetzaileak, hala dagokionean, interesdunei eskatuko die eskaeran eskatutako betekizunen gaineko akatsak zuzentzeko edo eskatutako agiriak aurkezteko, hamar egun balioduneko epean, errekerimendu jakinarazpena jaso ondorengo egunetik zenbatuta, larunbatak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan adieraziko da eskatutakoa bete ezean eskaeran atzera egin dela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

5. artikulua. Kontrolak

Onuradunek foru dekretu honetan eta beronen garapen arauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, Nekazaritza Sailak kasuan kasuko administrazio kontrolak eta lurra-
ren gaineko kontrolak egingo ditu.

Onuradunak utzi behar du Arabako Foru Aldundiak ustiatagian agindutako ikuskatze bisita guztiak egiten, eta eman behar du laguntzaren gainean eskatzen zaion informazio guztia.

6. artikulua. Baldintzak eta beste konpromiso edo eginbeharrak ez betetzearen ondoriozko zehapenak

6.1. Kontrol batean detektatzen bada eskatutako mahastiren batek nabarmen gisa katalogatzeko baldintzak betetzeari utzi diola, hari dagokion laguntza ukatuko da.

6.2. Betekizunak ez badira betetzen eta horren ondorioz ordainketa eskaera ukatzen bada, oinarri arautzaile hauen babesean onetsitako edozein deialditan ordura arte eskuratutako laguntzak Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko zaizkio, legeaz aplikatu beharreko interesekin batera.

7. artikulua. Baldintza artifizialak sortzea

Agerian geratzen bada onuradunak artifizialki sortu dituela laguntza bat emateko eskatzen diren baldintzak, hain zuzen, neurriaren helburuen aurkako abantaila bat lortzeko, onuradun horrek ez du jasoko eskubidez legokiokkeen laguntza, eta jasotako zenbatekoak gehi dagozkien interesak itzuli beharko ditu.

8. artikulua. Laguntzaren kalkulua. Zenbatekoa

Laguntzak izango dira onuradunei ordaintzea prima bat Arabako Lurralde Historikoan kokatutako mahasti hektarea bakoitzeko, bideratuta mota horretako mahastien mantentzeak eragindako kostuak edo diru sarreraren murrizketa (lortu gabeko irabaziak) estaltzera. Hauxe da zenbateko hori:

KATALOGOAN INSKRIBATZEAN LORTUTAKO PUNTUAZIOA	PRIMA EURO/HA
<=8 eta >=5	300
<12 eta >8	450
>=12	600

9. artikulua. Izapidetzea

9.1. Eskaerak aurkezteko epea amaituta, espedienteak Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak izapidetuko ditu.

9.2. Espedientea izapidetzen den bitartean, kudeaketa organoak behar beste argibide eta dokumentu gehigarri eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, ebazpen proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

9.3. Laguntzak lehia prozeduraren bidez esleituko dira, dagoen kreditua bera dela muga. Emango diren laguntzen bolumen osoak dirulaguntza horietarako guztira erabiliko den zenbatekoa gainditzen badu, hainbanatu egingo da onuradunen artean, alegia, oinarri hauen arabera, laguntzetarako eskubidea duten onuradunen artean, eta, hala, dagozkion zenbatekoak gutxitu egingo dira.

9.4 Laguntza horiek baloratuko dituen kide anitzeko organoa ondoren aipatzen diren pertsonen edo, beharrezkoa balitz, haien ordezkoei osatuko dute:

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuko teknikari bat.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Foru dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta inguruabarrei dagokienez, kide anitzeko balioespen organoak bidezkotzat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoituari.

10. artikulua. Ebaztea eta jakinaraztea

10.1. Kide anitzeko balorazio organoaren proposamenez, Arabako Foru Aldundiko kasuan kasuko organoak ebatziko ditu espedienteak indarrean dagoen legeriari jarraikiz, eta haien ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari. Dena dela, administrazioaren aurkako auzi errekurtsua jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, errekurtsu mota hori arautzen duen araudiari jarraikiz, aukerako berraztertze errekurtsua jartzeko aukerari kalterik egin gabe.

10.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarotakoan esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5. artikuluari jarraituz.

10.3. Laguntzak emateko ebazpenek espediente bakoitzean ezarriko dute zein izango den laguntzaren zenbatekoa. Laguntza murriztu edo txikitzen bada edo ebazpen negatiboa badago, arrazoiak zehaztuko da, bai eta, hala badagokio, kopurua ere.

10.4. Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da eta aurreko apartatuan adierazitako informazioa emango da bertan.

11. artikulua. Laguntzen ordainketa

Laguntzaren egiaztapen eta kontrol propio guztiak egindakoan, ordainketa egingo da.

Ordainketa egin ondoren jakiten bada laguntza ematean zeuden inguruabarrak aldatu direla, deialdiaren urtean beste neurri edo laguntza batzuen inguruan egindako kontrolen ondorioz, baldintzak betetzearen ondorioz, eta abar, ordainketa egokia birkalkulatuko da, zehazten diren baldintza berriekin bat etorriz. Zenbateko hori ordaindutakoa baino txikiagoa bada, dagokion itzulketa prozedura sustatuko da, bien arteko aldea berreskuratzeke.

12. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Foru dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek betebeharrak bete beharko dituzte:

12.1. Emandako laguntza onartzea. Laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, 10 eguneko epean laguntzari uko egiten ez badiote berariaz eta idatziz, onartu egin dutela ulertuko da.

12.2. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari eta Kontuen Euskal Epaitegiari ematea beren eginkizunak gauzatzean eskatzen duten informazioa foru dekretu honen babesean jasotako laguntzari buruz.

12.3. Laguntza zuzen eman dela egiaztatzeko, behar diren kontrol guztiak gainditzea.

13. artikulua. Ebazpenaren aldaketa, ez betetzea eta itzulketa

13.1. Dirulaguntzaren xedea betetzen bada, baina dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

13.2. Onuradunek betetzen ez badituzte hartutako konpromisoak edota foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko diote, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo bidezko egintzak bideratzeari, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak xedatutakoaren arabera.

13.3. Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira legezko ondorioetarako.

13.4. Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntza oso-rik edo horren zati bat itzuli behar den, ikuskatze edo kontrol txostenari eta itzultzeko proposamenari atxikiz, onuradunari entzun ondoren.

13.5. Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitako arau haustengatik zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

14. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako erregelamenduan ezarrita dagoena bete behar dute, bai eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako araudiko xedapen aplikagarriak ere.

15. artikulua. Laguntzen finantzaketa

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituetatik aterako dira, eta estatu mailako laguntzatzat joko dira.

16. artikulua. Babes neurri osagarriak eta bateragarritasunak

Dekretu honetan ageri diren mahasti nabarmenak kontserbatzeko eta babesteko neurri, pizgarri eta laguntzak bateragarriak izango dira etorkizunean balia daitezkeen edo zeinahi antolakunde edo erakunde publikok nahiz pribatuk ezar ditzakeen beste batzuekin.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Mahasti Nabarmenak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntza osagarriaren eskaera

Solicitud de ayuda complementaria para el mantenimiento y conservación de Viñedos Remarcables

2025KO KANPAINA ■ CAMPAÑA 2025

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

Eskaera zk. ■ N° Solicitud :
Adm-k betetzeko ■ A cumplimentar por la Adm.

ESKATZAILEAREN DATUAK ■ DATOS DEL SOLICITANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ N° identificativo		Sexua ■ Sexo	
☐ IKZ NIF	☐ AIZ NIE	☐ Besteren bat Otro			☐ Emakumea Mujer	☐ Gizona Hombre
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social			Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido	
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)			Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso
						Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País			Probintzia ■ Provincia		Udalerría ■ Municipio	
Herria ■ Localidad			P. K. ■ C. P.			
Telefonoa ■ Teléfono		Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico		Uztiategi kod. ■ Cód. explotación	

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL
(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)			Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso
						Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País			Probintzia ■ Provincia		Udalerría ■ Municipio	
Herria ■ Localidad			P. K. ■ C. P.			

ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ N° identificativo		Sexua ■ Sexo	
☐ NAN DNI	☐ AIZ NIE	☐ Besteren bat Otro			☐ Emakumea Mujer	☐ Gizona Hombre
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social			Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido	
Telefonoa ■ Teléfono		Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax		Posta elektronikoa ■ Correo electrónico	



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Mahasti Nabarmenak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntza osagarriaren eskaera

Solicitud de ayuda complementaria para el mantenimiento y conservación de Viñedos Remarcables

2025KO KANPAINA ■ CAMPAÑA 2025

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

INFORMACIÓN SOBRE CONSULTA DE DOCUMENTOS POR LA ADMINISTRACIÓN

La Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las AAPP en su artículo 28 establece que los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. La Diputación Foral de Álava podrá consultar o recabar dichos documentos salvo que el interesado se opusiera a ello.

Documentación a recabar por la Diputación Foral de Álava:

- Datos de identidad y, en su caso, de residencia legal, de la Dirección General de la Policía para personas físicas.
- Estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social, de la Tesorería general de la Seguridad Social.
- Estar al corriente de las obligaciones tributarias. (1)

Desde la Diputación Foral de Álava podemos obtener la anterior documentación por ti. ¿TE OPONES a que lo hagamos?

☐ Sí ☐ No

Si marcas "Sí": deberás aportar tú dichos documentos al tramitar o te serán requeridos con posterioridad.

(1) Es obligatorio aportar el documento para solicitantes con domicilio fiscal fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

☐ **Berdintasunaren arloko araudiko baldintzak onartzen ditut:**

Berdintasunaren arloko araudia betez aitortpena ikusi
<https://egoitza.araba.eus/documents/6024681/0/normativa-igualdad.pdf>

☐ **Acepto las condiciones de la normativa en materia de igualdad :**

Ver Declaración de normativa en materia de Igualdad
<https://egoitza.araba.eus/documents/6024681/0/normativa-igualdad.pdf>

Lege oharra.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta:

- T24 NEKAZARITZA USTIAPIENEN JABEAK tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: Lehen sektoreko dirulaguntzak kudeatzea.
- T39 HIRUGARRENAK ETA INTERESATUAK tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: aurrekontu eta aurrekontu kanpoko burutzapen eragiketak izapidetzea, hala gastuenak nola sarrerarenak.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoa baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Informazio gehiago eskuratzeko:

<https://web.araba.eus/es/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

Aviso Legal

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de:

- T24 TITULARES DE EXPLOTACIONES AGRARIAS para la finalidad de Gestión de subvenciones del sector primario.
- T39 TERCEROS E INTERESADOS para la finalidad de la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria o extrapresupuestaria, tanto de gastos como ingresos.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación y portabilidad que reconoce el RGPD, en la sede electrónica www.araba.eus o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz, Álava).

Para más información:

<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>

☐ **Onesten dut Arabako Foru Aldundiak nire datu personalak kudeatu ditzala deialdi honen kudeaketa egiteko**

☐ **Acepto que Diputación Foral de Álava gestione mis datos personales para realizar la gestión de esta convocatoria.**

www.araba.eus

Probintzia plaza, s/n 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181818. Fax +34 945 181754. e-mail: afa-dfa@araba.eus
© Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava

2/3



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

**Mahasti Nabarmenak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntza
osagarriaren eskaera**

**Solicitud de ayuda complementaria para el mantenimiento y
conservación de Viñedos Remarcables**

2025KO KANPAINA ■ CAMPAÑA 2025

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

ADIERAZTEN DUT:

Ezagutzen dut aplikatzekoa den araudia, eskaera honetako eta aurkeztutako dokumentazioko datu guztiak benetakoak dira eta indarrean daude, eta ez dira artifizialki sortu onartua izateko.

DECLARO:

Conocer la normativa aplicable, siendo auténticos y estando en vigor todos los datos contenidos en la presente solicitud y en la documentación aportada, no habiendo creado artificialmente las condiciones exigidas para cumplir los criterios de admisibilidad.

ESKATZEN DUT:

Mahasti nabarmenak kontserbatzeko AFaren laguntza eskatzen diot Katalogoaren inskripzioaren arabera.

SOLICITO:

Solicito la ayuda de DFA a la conservación y mantenimiento de viñedos remarcables de acuerdo a su inscripción en el Catálogo de Viñedos Remarcables del Territorio Histórico de Alava

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordez kariaren sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante